

# NORANTZA

# UNAI BREA

"EUSKALTZALE" ALDIZKARIAREN ARDURADUNA

## «EH Eren aldizkariak UEMAren garrantzia azpimarratzen du»

«Euskaltzale» aldizkariaren bitartez, Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskaltzaleen ardura eta interesa pitzen duten gaiak jorratzea du helburu. Azken alean UEMA da protagonista nagusia.

da, gure mezua euskaltzaleei helarazteko beste modu bat, alegia. Egun dauden komunikabideen gehiengoak herri mugimenduari jaramon gutxi egiten diola pentsatzen dugu. Hori kontuan hartuta, beraz, herri mugimenduarentzat garrantzitzakoak eta interesgarriak diren gaiak irakurtzeko eta informatzeko halako tresnak sortzea eta erabiltzea garrantzizkoa dela uste dugu. Ildo horretatik, gure helburua gure zereginarean eta mezuraren ardatzak maiztasun batekin euskaltzaleei helaraztea da.

euskaldunak bultzatzeko egin behar den abalegin berezi hori azpimarratu beharra dago. Gai hau aurrera eramateko, Euskal Herrian indar falta dagoela pentsatzen dugu, eta euskaltzale eta abertzale garenok behar dugula indarberritu egin behar dugula pentsatzen dugu. Horrela, erreportaia zehar, UEMAK sortu zenetik izan dituen oztipoen berri ematen da, etxean nahiz kanpoan. Horren haritik, oztipoak gaititu beharra dagoela azpimarratzen dugu, gaur egun euskarak nagusitasun osoz ibiltzeko falta dituen faktoreak lortzeko bidean. Gainera, egun, lan hau burutzeko UEMARI egokitu zaio eta euskaltzale guztion parte-hartzea ezinbestekoa da, oztipo eta muga guztien gaitetik aurrera egiteko.

### AMAIA MUNDIÑANO

«Euskaltzale» aldizkaria, lehenengoz, duela zazpi urte inguru kaleratu zen. 23. alea kaleratu berria da eta, aldizkariaren orokorrean eta, batez ere, bertako gai nagusiei buruz hizketan aritu gara Unai Brearekin.

tzeko aukera baldin badago ere, gehienbat eskura banatzen dugu. Euskal Herri osoan banatzen da, baita hemendik kanpo ere.

**Zer dakarkio «Euskaltzale»k euskarari, euskaltzaleei eta, oro har, Euskal Herriari?**

Aldizkaria, guretzat, komunikazio tresnen artean bat gehiago

**Kaleratu berri den azken alean, UEMA da gai nagusia. Zergatik aukeratu duzue gai hau?**

Gure uestez, udalerrri

**Zein helbururekin sortu zen «Euskaltzale» aldizkaria?**

Euskal Herrian Euskaraz taldearen aldizkari hau, lehenengoz, duela zazpi urte inguru kaleratu zen. Gora-behera batzuk izan ondoren, ordea, duela bi urte berpiztu zela esan genezake. Izan ere, gure taldearen mezua, eta guk euskararen inguruan duguna zabaltzeko eta aditzera emateko tresna egokia dela pentsatzen dugu. Hori dela eta, pixkanaka, bideragarritasuna ematen joan ginen; bi hilabeteroko maiztasuna izatea lortu dugu eta, gainera, itxura berri bat ematea ere bai. Edukietan hobetzen saiatzen gara batik bat.

**Zer-nolako hedapena du aldizkariak?**

Esan bezala, aldizkaria bi hilabeteko kaleratzen dugu, aldiko 6.000 ale. Euskaltzaleei zuzendua dago eta, harpidetzaren bidez lor-



Karlos Corbelli

### Zirtoika



Txillarredegi

### Bakea ondorio

Bakea ez da desordenurik eza. Bakea ez da kale-nahaspilarik eza.

Bakea ez da, bidenabar, kale-borrokari eza. Hori ere ez da. Hori soilik ez, batez ere.

Bakea ez da frankistek, 60 etako hamarkadan, hain gozoz eta ozenki hanpatu zuten "25 años de paz" ospaketa lotsa-gaidu hura.

Kanposantuetako sasi-bakea izango ez bada, Justizia-aren gainean behar da eraiki bakea.

Bakea justiziaren ondorioa da, eskubideen errespetuari datxeko. Eta ez beraien ukuari. Eta Euskal Herriaren gauza bera.

«Herriek oro dute auto-determinazio eskubide agorrezin eta galezina», dio Nazioarteko Zuzenbideak.

Hortaz, Euskal Herriak ere badu. Euskaldunok geure burua nahi bezala gobernatzeko eskubide sakratua dugu.

Izan, ez gara espainiarrek ez frantsesak.

Eta ez dugu bihurtu nahi. Naziogabetez-lana latza eta iraunkorra izan bada ere, ez dugu etsi nahi. «Gauden gu» diogu. Espainiar eta frantses gisa jai dugula ikasi batugu mende hitsetan barena.

Geure buruaren jabe izan nahi dugu, eta euskaldun gisa bizi.

Eta eskubide hau aitortuko ez zaiguno, beste "100 años de paz" antolatuko dira beharbada. Odoletan eta negarretan blaituak, zorizaitzez.

Baina bakeaz... ezta arrastorik ere.

Bakea ondorioa baita, eta ez abiapuntua.

## AITZINDARIAK

**Manuel LARRAMENDI**  
1690-1766



¿Que razón hay para que la NACIÓN BASCONGADA no sea nación aparte, nación de por sí, nación exenta e independiente de las demás ?



¿Por qué tres provincias de España, Y NO HABLO YA DEL REINO DE NAVARRA, han de estar dependientes de Castilla : GUIPUZCOA, ALAVA Y VIZCAYA ; y otras tres dependientes de Francia : LABORT, ZUBEROA, Y BAJA NAVARRA ?



¿Por qué el Bascuence, LENGUA TAN VIVA Y DE MAS VIDA QUE OTRA NINGUNA no ha de ver a todos sus bascongados juntos y unidos en una SOLA NACIÓN LIBRE de otra lengua y nación ?



Guerras tendremos que sustentar; sea así. Solicitemos a unos y otros, y nos llamaremos LAS PROVINCIAS UNIDAS DEL PIRINEO, y haremos una REPUBLICA TODA DE BASCONGADOS.

Si pareciera más convenientemente, elegiremos Rey; y si nos fuera bien, haremos ELECCION EL REINO.

Nuestras peticiones se reducirán a candidar sin excepción alguna TODAS LAS PARTES DE ESPAÑA Y FRANCIA, y se decretará la sencillez y astorsidad que ha de gozarse en toda.